

## EUSKALTZAINDIAK @.REN EUSKAL IZENA ERABAKI DU

– **a bildua** izendapena onartu du Akademiak.

Euskaltzaindiak 2003-eko urriaren 24an Bilboko bere egoitzan egindako bileran, Hiztegi Batuko beste hitz askoren artean, gaurko bizimoduan garrantzi handia daukan sinbolo baten euskal izena erabaki zuen: @-rena hain zuzen. Dakigunez, posta elektronikoan hainbeste erabiltzen den ikur honek izen ezberdinak dauzka munduko hizkuntzetan, adibidez, ingelesez *at*, eta alemanek ere horrelaxe darabilte, espainolez *arroba*, frantsesez *arobase*, eta italiaraz, *chicciola* ‘barraskiloa’. Bestalde, euskaraz, erdarazko *arroba* arruntaz gainera (arabierazko *ar-rub*-etik mailegatua, euskarak *arroa* moduan jaso), izan dira beste zenbait proposamen, batzuk besteak baino serioagoak, hala nola *a batua*, *a bildua*, *barraskiloa* edo *txibirita*, ezagunenak besterik ez aipatzearren. Hori dela eta, alde batetik nazioarteko batasunik eza, eta gure arteko aniztasuna ikusita, informatikarien aholku eta proposamenak jaso eta aztertu ondoren, Euskaltzaindiak, espainierazko *arroba* guztiz gaitzetsi ez arren, @ ikur honetarako ‘**a bildua**’ izendapena hobestea erabaki zuen, euskaldun hiztun eta idazle guztiei eredu jatorragoa eskaini nahirik.

## EUSKALTZAINDIA DECIDE SOBRE EL NOMBRE DEL SIGNO @

– La Academia aprueba la denominación de *a bildua*.

En su pasada reunión mensual del 24 de octubre de 2003, la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, entre otras muchas palabras, tomó una decisión sobre el nombre de un símbolo que ha adquirido una gran importancia en la vida moderna: @. Como es bien sabido, esta marca, tan utilizada en el correo electrónico, se denomina de diferentes modos según los idiomas, por ejemplo, *at* en inglés y en alemán, *arroba* en español, *arobase* en francés y *chicciola* ‘caracola’ en italiano. Por otra parte, en vasco, además del castellanismo *arroba* (palabra procedente del árabe *ar-rub*, y que en euskara ha dado *arroa*) se vienen empleando también otros términos, unos más serios que otros, tales como *a batua*, o *a bildua* ‘a rodeada o envuelta’, *barraskiloa* ‘caracol’ o *txibirita* ‘margarita’. Ante la falta de unanimidad en las denominaciones de otros idiomas y la diversidad de criterios existente en vasco, Euskaltzaindia, tras estudiar las propuestas de los especialistas en informática, ha decidido, sin rechazar por el momento el castellanismo *arroba*, proponer como más adecuada para la lengua vasca la fórmula *a bildua*, esto es, ‘a envuelta’, intentando ofrecer de esta manera a todos los hablantes y escritores un modelo más castizo e unificado.

## EUSKALTZAINDIA STATUE À PROPOS DE L'APPELLATION DU SIGNE @

Lors de son assemblée mensuelle du 24 octobre dernier, 2003, l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia, parmi d'autres sujets traités, a pris une décision en ce qui concerne le nom d'un symbole qui a acquis une grande importance dans la vie moderne : @. Tout le monde sait que ce signe, si souvent utilisé dans le courrier électronique, prend différents noms selon la langue utilisée, par exemple *at* en anglais *et* en allemand, *arroba* en espagnol, *arobase* en français et *chicciola* 'escargot' en italien. D'autre part, en basque, en dehors du castillanisme *arroba* (mot venant de l'arabe *ar-rub*, qui a donné en basque *arroa*), on utilise également d'autres termes, certains plus sérieux que d'autres comme *a batua*, ou *a bildua* 'a entouré ou enroulé', *barraskiloa* 'escargot' ou *txibirita* 'coquillage'. Face à ce manque d'unanimité pour les appellations dans d'autres langues et la diversité des critères existant en basque, Euskaltzaindia, après avoir étudié les propositions de spécialistes en matière informatique et sans pour autant rejeter pour le moment le castillanisme *arroba*, a décidé de proposer une forme plus adaptée à la langue basque *a bildua*, c'est-à-dire 'a enroulé', afin d'offrir ainsi à tous les bascophones et à tous les écrivains un modèle à la fois unifié et plus authentique.